



AKTA

Aiarako Kuadrillako **KUADRILLAKO BATZARRAK** eginiko **ohiko bilkurakoa**.

2022ko MAIATZAREN 30a

Amurrioko Udalaren udaletxeko **osoko bilkuren aretoan, 13:06** direnean, **ohiko bilkurari** hasiera eman zaio, **lehen deialdian, Encina Castresana Astarloa Kuadrillako Presidentea** buru dela, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak bertaratuta. Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean sinatzen duena, aritu da behin-behineko idazkari-lanetan.

Honako batzarkide jaun-andre hauek bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)
Aitor BURGOA MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH-BILDU)
Irene ITURBE ERRASTI (EH-BILDU)
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH-BILDU)
Nagore GOMARA PICAZA (EH-BILDU)
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)
Álvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Ez dira etorri, eta ezin etorria adierazi dute, honako batzarkide hauek:

Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)
Ixone SARATXAGA IBARRETXE (EAJ-PNV)
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)



Monserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Jon BERGANZA URRUELA (EH-BILDU)
Joseba VIVANCO RETES (EH-BILDU)
Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH-BILDU)

Gomara Picaza andrea 13:10 direnean bertaratu da, 2. puntua jorratzen ari zirenean.

Kuadrillako Presidenteak hasiera eman dio bilkurari, **lehen deialdian, 13:06 direnean**, Idazkariak Kuadrillak arautzen dituen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.c) artikuluari dagokionez (lege hori, besteak beste, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatu zuen), bilera abiarazi ahal izateko quoruma dela egiaztatu ondoren, eta saiorako ezarritako Aztergaien Zerrendari jarraitu zaio.

1.- AZKEN BI BILKUREN AKTEN ZIRRIBORROAK IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA.

Azken bi bilkuren (bata 2021eko azaroaren 26koa eta bestea 2022ko urtarrilaren 21ekoa) akten zirriborroak erantsi zaizkio aztergaien zerrendari, aztertu ahal izateko.

Aho batez ADOSTU DA 2021eko azaroaren 26ko bilkuraren akta onestea.

Gehiengoak ADOSTU DU, aldeko 19 botorekin (EAJ-PNV 9, EH-BILDU 5, SOCIALSITAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK 2, OMNIA 2 ETA OKONDO AURRERA 1) eta 1 abstentziorekin (AIARA BATUZ), 2022ko urtarrilaren 21eko akta onestea.

2.- AIARAKO KUADRILLA UDALSAREA 2030, GARAPEN JASANGARRIAREN ALDEKO ARABAKO ALIANTZA ETA 2030 AGENDARA ATXIKITZEA

Presidenteak jakinarazi du 2022ko maiatzaren 13an (13:00etan) egin zen Aiarako Kuadrillaren INGURUNEKO INFORMAZIO-BATZARRAK eginiko ohiko osoko bilkuran honako irizpen hau onetsi zela aho batez:

IKUSI DA Udalsarea 2030era eta Garapen Jasangarriaren Aldeko Arabako Aliantza eta 2030 Agendara atxikitzeke erabakien edukia



IKUSI DA Aiarako Kuadrillak Garapen Jasangarrian parte hartzeko duen interesa, bi sareek gainerako administrazioekin ezarritakoarekin bat etorritz

LEHENENGOA. – Aiarako Kuadrilla Udalsarea 2030 eta Garapen Jasangarriaren Aldeko Arabako Aliantza eta 2030 Agendara atxikitzea onestea.

BIGARRENA. – Presidentea gaitzea bi atxikitze-erabakiak sinatzeko.

Ez denez eztabaidarik egon, aho batez ADOSTU DA honako AKORDIO hau hartzea:

IKUSI DA Udalsarea 2030, Garapen Jasangarriaren Aldeko Arabako Aliantza eta Agenda 2030era atxikitze erabakien edukia

IKUSI DA Aiarako Kuadrillak Garapen Jasangarrian parte hartzeko duen interesa, bi sareek gainerako administrazioekin ezarritakoarekin bat etorritz

LEHENENGOA. – Aiarako Kuadrilla Udalsarea 2030, Garapen Jasangarriaren Aldeko Arabako Aliantza eta Agenda 2030era atxikitzea onestea.

3.- MARIO ORTIZ PANIEGO JAUNAK JARRITAKO DEMANDAREN EPAIAREN KONTU EMATEA GASTEIZKO LAN-ARLOKO EPAITEGIARI.

Presidenteak Mario Ortiz Paniego jaunak Lan-arloko Epaitegiaren aurrean aurkeztutako demandaren epaia jakinarazi du, eta adierazi du errekurtoa jarri dela.

González García andreak (OMNIA talde politikoko kide gisa) adierazi du Kuadrillan gertatzen denaren adibide argia dela, eta gaiak zorrotasun gehiagorekin tratatu behar direla. 18.000,00 €-ko gastua izan da Kuadrillan lan egin ez duen pertsona batean.

Ibarluzea Ortueta andreak (EH-BILDU talde politikoko kide gisa) adierazi du González andreak esandakoarekin ados dagoela, 18.000,00 € galdu dira akats baten ondorioz eta ez da ezer egin. Horrelakoak ezin dira inoiz errepikatu. Ez daki nor den akats horren arduraduna, eta gainera dirua publikoa da.

Presidenteak erantzun du hobetzeko lanean ari direla eta ez errepikatzea espero duela.

Añibarro Maestre jaunak (EAJ-PNV talde politikoko bozeramaile gisa) adierazi du gaia batzordean eztabaidatu zela, eta bertan azalpenak eman zirela.



Kudeatzaileak eta presidenteak gertatutakoak azaldu zuten. Arazo teknikoa izan da, eta Kuadrillan gaian hobetzen ari dira.

González García andreak (OMNIA talde politikoko kide gisa) adierazi du gaia legealdiaren hasieran eztabaidatu zela, lan-poltsei buruzko araudia egin behar dela eta oraindik ez dela ezer egin. Herritarren diruarekin ordaintzen dira kalteak, eta azpimarratu du gauzak ondo egin behar direla eta poltsenak jada eginda egon beharko zuela.

4.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Azken bilkuratik hona onetsitako Presidentzia Dekretuen berri eman da, eta hauek dira:

02/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urtarrilaren 17koa; Transbertsalitate Planaren lizitazioa onestea

03/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urtarrilaren 31koa; Txakolinaren Ibilbideari lotutako auditoretzen adjudikazioa

04/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urtarrilaren 31koa; urtarrileko ordainsaria

05/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urtarrilaren 31koa; Emakunde laguntzak eskatzea

06/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, otsailaren 15ekoa; 1. hiruhilekoko gastu orokorren eta zerbitzuen eskaera

07/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, otsailaren 22koa; hiri-hondakin solidoen 1. hiruhilekoko ekarpena

08/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, otsailaren 22koa; Berdintasuneko laguntzak eskatzea

09/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, otsailaren 23koa; artxiboari lotutako dirulaguntzen eskaera

10/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, otsailaren 25ekoa; otsaileko ordainsaria

11/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 1ekoa; lehen lanbide-esperientziari lotutako laguntzen eskaera

12/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 1ekoa; Ingurumen Adjudikazioa, konpost-ontziak eta poltsak

13/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 1ekoa; Aiaraldearen inguruko publizitatearen adjudikazioa

14/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 4koa; lurraldeko proiektuei eman beharreko laguntzen eskaera

15/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 11koa; AFA formakuntzari eman beharreko laguntzen eskaera

16/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 15ekoa; gastu orokorretarako ekarpenen erregularizazioa (2021)



-
- 17/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 18koa; hiri-hondakin solidoetarako ekarpenen erregularizazioa (2021)
- 18/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 25koa, liburuxkak inprimatu eta banatzeari lotutako adjudikazioa
- 19/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 29koa; likidazioaren onespena (2016)
- 20/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 30koa; FLG kredituen gehikuntza
- 21/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 30koa; komunitatean konpostatzeko guneen egituratze eta jarraipenaren adjudikazioa
- 22/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, martxoaren 31koa, martxoko ordainsaria eta atzerapenak
- 23/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, apirilaren 27koa; Batukadaren adjudikazioa
- 24/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, apirilaren 27koa; *standetako* arretaren adjudikazioa
- 25/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, apirilaren 27koa; apirileko ordainsaria
- 26/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 11koa; AFA turismoan inbertitzeko laguntzen eskaria
- 27/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 11koa; Txakoli Eguneko jardueren adjudikazioa
- 28/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 11koa; 2030 Agendari lotuta, ikastetxeen lekualdatzeen adjudikazioa
- 29/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 11koa; Txakoli Egunaren sustapenaren adjudikazioa
- 30/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 16koa; denda-sareari lotuta, Vital Fundazioaren Hitzarmenaren inguruko kredituen gaikuntza
- 31/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 16koa; lehen esperientziari lotutako kredituen gaikuntza
- 32/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 16koa; lurraldeko planei lotutako kredituen gaikuntza
- 33/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 16koa; lurraldeko planen lizitazioa onestea
- 34/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 16koa; Biologoek elkarrekin aurkeztutako errekursoari erantzutea
- 35/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 16koa; 2. hiruhilekoko gastu orokorren eta zerbitzuen eskaera
- 36/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 16koa; hiri-hondakin solidoen 2. hiruhilekoko ekarpena
- 37/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 17koa; EJK ematen dituen Lanpostu Turistikoei lotutako laguntzen eskaria
- 38/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, maiatzaren 20koa; Aiarako Udalarari egoitza den eraikina uzteko eskaria



González García andreak (OMNIA talde politikoko kide gisa) eskatu du egin den bezala onetsitako dekretuen berri emateaz gain, hilero onetsi diren dekretuak ere bidaltzea, egiten ari dena egiaztatu ahal izateko eta informazioa eskuragarriago izateko. **Presidenteak** erantzun dio eskaria gogoan hartu duela.

5.- ESKAERAK ETA GALDERAK

González García andreak (OMNIA talde politikoko kide gisa) adierazi du badagoela martxan dagoen Lanpostuen Balorazio bat, eta gustatuko litzaiokeela horren zirriborroa eskuratzea. Gainera, adierazi du lehenbailehen heldu behar zaiola gai horri. **Presidenteak** erantzun dio oraindik ez duela balorazioa.

Población Martínez andreak (EH-BILDU talde politikoko kide gisa) enplegu publikoaren eskaintzari lotutako deialdiaren inguruko azalpen bat eman du, eta adierazi du bitarteko postu gehienak finkatu direla. Horietako zenbaitek 3 eta 4 profila dute derrigortasun-datarik gabe. Horren ondorioz, urte askoan zehar, bi hizkuntza ofizialetako bat bakarrik bermatu duten pertsonak beteko dituzte lanpostu horiek. EH-BILDUK eskatu du lanpostu horiek profila duten pertsonen esleitzeko, eta ez zero profila duten pertsonen. Hori atzerapausoa da eta, berriz ere, euskara zokoratuta geratu da Kuadrillan.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ talde politikoko kide gisa) aipatu du Población andreak adierazitakoarekin bat datorrela, eta jakinarazi du haren taldea deialdi horren inguruko errekurtsoa aurkeztea pentsatzen ari dela.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, lege-aginduz, goian adierazitako eguneko 13:23 direnean, bukatutzat eman da bilkura. Akta hau presidente andreak sinatu du eta nik, behin-behineko idazkaria naizenez, sinatu eta egiaztatu dut.

PRESIDENTEA: Sinadura: Encina Castresana Astarloa

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA: Sinadura: Gianfranco Ghio Alonso

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE